

Ekintzak guk sorturikoak izango dira, non lehen esan bezala, naturarekin kontaktua sustatuko dugu. Orduan, errekarra joatea, baratzean egotea, animaliekin kontaktua eta abar landuko dira.

Ordutegiari dagokionez; Astelehenetik ostegunera ordu batekoa izango da zerbitzu hau, txangoak daudenean ordea ordu hauek gehitu egingo dira txangoaren arabera ( hau aurretiaz gurasoei abisatu eta kontsultatuko zaie ).

Gero ostiraletik igandera bi ordukoa izango da zerbitzua, lehen ezan bezala txangoak badaude orduak gehitu egingo dira hemen ere.

Ibilaldiak ere gure puntu garrantzitsu bat izango dira, astero, bat, bi alditan izango dira eta haurrak ondo pasatzeaz gain ikastea ere izango da helburua. Noizean behin beraiei galdetuko diegu nora joan nahi duten ( beti ere bultzatzen ari garen baloreekin bat datorren lekuak izan behar dira ), horrela beraiek ere parte hartzaile sentituko dira, ikusiko dute beraien iritzia ere kontuan hartzen dela.

Familiek aukeratu ahal izango dute beraien haurra ze egunetan apuntatzen duten eta hau inskripzio orrian jarriko dute haurra apuntatzean, horrela guk egun bakoitzean zenbat ikasle izango ditugun jakingo dugu gauzak aurretiaz prestatzeko.

Ekintzak antolatzeko, lekua egokiak izan behar direla uste dugu, eta honetarako, euskal kulturarekin zerikusia izan behar dute. Antolakuntza honetarako eskema bat egingo dugu, honen barruan, bi motatakoak egongo litzateke, alde batetik, barru ekintzak, gure eremuan (lokala dagoen herrian) egingo ditugunak izango dira.

Beste alde batetik, kanpo ekintzak daude. Hauek garraioa edo gure esparru horretatik mugitzea behartzen digutenak izango litzateke, adibidez euskal museo batera joatea, beste herri bat bisitatzera joatea...

Garrantzitsua da publizitatea eta sare sozialak ondo kudeatzea, interesa bermatzeko eta talde honetan haur gehiago batzeko, hala nola, sare sozialetan egingo dugunaren berri ematea eta jarraitzeleei egingo ditugun ekintzak gogoratzea, horretarako aurretik esan dugun moduan instagrama, web-orrialdea... sortuko ditugu. Hau guztia, antolakuntza on bat izatea, beharrezkoa dela uste dugu zerbitzu egoki bat eskaintzeko.

Honez gain, garraioa ondo antolatzea ezinbestekoa da gure helmugara ondo heltzeko, hau da, zenbat denbora emango dugun bidean, autobusera sartzen, haurrak antolatzen eta kontatzen (jakiteko edonor falta den edo ez)... Bestetik, autobusa geldialdi bat baino gehiago egingo badu, haurrak jasotzeko, ondo antolatuta egotea denbora murrizteko, orden bat izatea.

BARRU EKINTZAK	KANPO EKINTZAK
<p><b>Herriko Frontoian:</b></p> <p>Mitologia saioak, hau da, euskal mitologiaren barruan dauzen pertsonaietaz mozorratu eta jolasen bat egin.</p>	<p><b>Izenabuda Basoa/Olentzeroren etxea:</b></p> <p>Olentzero Euskal Mitologiaren parte denez, irteera bat egingo genuke beraren etxera, haurrak hau ondo ezagutzeko.</p>
<p><b>Herriko Frontoian:</b></p> <p>Naturarekin lotutako ekintzak, gure naturan dauden mota desberdineko elementuak ezagutu.</p>	<p><b>Altamirako Kobazuloa:</b></p> <p>Irteera bat egingo genuke kobazulo hau ezagutzeko. Bertan, kobazulo barrura sartuko gineteke, barruan dauden harri desberdinak ikasteko.</p> <p>Txango honetara linterna desente bat eraman beharko genuke kobazuloaren iluntasuna argitzeko.</p>
<p><b>Gure Lokalean:</b></p> <p>Ezagutza jolasak, papiroflexia...</p>	<p><b>Omako Basoa eta Santimamiñeko kobazuloa:</b></p> <p>Baso honetan, omako basoa ezagutuko genuke, bertan dauden zuhaitzen margolanak ikusteko eta bertan jolas dinamikoaren bat egin genezakegu.</p> <p>Ondoren, Santimamiñeko kobazulora joango gineteke, bertan dauden margolanak ere ikusteko.</p>
<p><b>Gure Lokalean:</b></p> <p>Euskal Herriko hizlariren batek hitzaldiren bat.</p>	<p><b>Saldropo:</b></p> <p>Bertan Ugunako ur-jauzia ikusiko genuke eta naturarekin ekintzak egingo genituzke. Gainera, jateko mahiak daude eta hor jan ahal dugu.</p>
<p>Lokala daukagun herrian zehar <b>altxorren bila</b> jolasa prestatu.</p>	<p><b>Multiabentura parke</b> batera joan, egunen batean irteera bat egingo genuke haurrei asko gustatzen zaielako horrelako lekuak.</p>